

BERRIGARA

69. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, ekainak 19

600 IKASLE
INGURUK
SELEKTIBITATE
AZTERKETA
EGIN DUTE
BERGARAN
OSTEGUN ETA
OSTIRALEAN

EUSKAL
BIZIKLETA
PUNTA-
PUNTA
ZIKLISTAK
BERGARAN

KIROLAK

BERGARAK HIL
ALA BIZIKO
PARTIDUA
JOKATUKO DU
IGANDEAN
AGORROSINEN

Gipuzkoako gorren eskolak 25 urte



OPEL ASTRA BERRIA

POTENTZIA
ADIMENTSUA



TALLERES
OLA, S. L.

Olabarreña Auzoa, 2/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Erakusketa ARRASATen:
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria




OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK. HOBEAK ESPERIENTZIAZ.

OPEL

EUSKALDUNON

EKAINAK 21 Usurbilen



Zatoz!



EMAN ARNASA
EGUNKARIari

UDAN EZ DUGU IXTEN



ZURE OPORRETAN ATEAK IREKIRIK DITUGU

UDA IKASTAROA 92

Uztailaren 1etik 28ra arte

5 ordu goizez

Maila guztiak

Matrikulaldia:

Ekainaren 15etik 26ra arte

Prezioa:

5.500 pzta. (materiala barne)

16urteetik gorakoentzat

Beka sistema dago

Informazio zehatzagoa:

BERGARAKO

UDAL EUSKALTEGIA

Bidekurutzeta, 27 2.a

(Sarrera Zabalotegitik)

BERGARA

Tfnoa:76 44 53

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritz

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599


BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eriztien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

TRAFIKO ARAUDIA

Trafiko zuzendaritzak ezarri eta aste honetan indarrean jarri den trafiko araudi berria izan dugu asteko protagonista. Astelehen bertan udaltzainek gidariei zinturoia jartzeko gogorarazten hasi ziren, araudi berriari gerrikoa herri barruan ere erabiltzea agintzen baitu. Datozen hilabeteotan zinturoia erabiltzeko beharraren kontzientziazio *kanpaina* burutuko da herri guztietan, eta hortik aurrera zigorrak jartzen hasiko dira.

Bestalde, herri barruan ezin izango da 50km. orduko abiadura



gainditu eta, era berean, edozein zilindradako motorretan doaztenek derrigorrezkoa izango dute kasakoa erabiltzea. Argiak ere ezin izango dira edozein motatako seinaleak egiteko erabili.

Aste honetan jarri da indarrean araudi berria

ITURRI ONETIK

Udaletxea berrizteko lanak abuztu aldean hasiko dira

Udaletxea berrizteko lanak Aste Santu ostean hastekoak baziren ere, atzeratu egin dira eta abuztu aldera hasiko dira. Egitasmoa hilaren 29an egingo den Plenoan onartuko du Gobernu Batzordeak eta hortik aurrera, tramiteak burutu ondoren, obren adjudikazioa egin eta berehala ekingo diote lanari. Udaletxean geratzen diren zerbitzuak, bestalde, hilaren amaierarako Irizar Etxera pasatuko dira.

ESAN DUTE

"Abentura maite dugunok eta horrela eskalatzen edo bidaiatzen gabiltzanok umeengandik hurbilago gaude eta errezago konprenitzen ditugu".

DAMASO G.
Irakaslea eta bidaiaria
IKASTOLA ALDIZKARIA

"Egia da, politikan aurrera egiteko -edo hobeto esanda, atzera egiteko- ez zeneukala itsasontziko makina-gela eta zubiaren artean hainbeste buelta eman beharrik".

JOSE LUIS ELKORO
HBko Mahai Nazionalekoa
EGIN

"Jendea ez da konturatzen hondartza eta mendietan zaborbiltzailerik egunero pasatzen ez dela".

IÑAKI IRIZAR
Biologoa
EUSKADI IRRATIA

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zublaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA





LOS REYES DEL MAMBO

Ostirala: 22.30.
 Igandea: 17.00, 19.30
 eta 22.15.
 Astelehena: 19.30.

▼▼ Gure artean oso ezaguna den Antonio Banderas aktoreak *pulitzer* saria irabazi zuen nobela honen pantailatzearekin debutatu du Hollywooden. 1.950. hamarkadan Estatu Batuetara heldu berriko bi kubatar musikarien istorio unkiagarria kontatzen zaigu filmean. Aktore ezagunez gain, musika dugu filmeko benetako protagonista.



- **Ignacio Moreno** bergarar margolariaren erakusketa Kultur Etxean, ostirala, hilak 19tik, hil amaierara arte.



Ignacio Moreno, Bergarako beste hainbat pintore bezala Verdurihalean ekin zen. Kultur Etxean erakusten du bere kuadririk interesgarrien bilduma.



- **Egunkaria**ren aldeko jaialdia **igandean Usurbilen** goizeko 10etatik aurrera. Era guztietako jolasak haurrentzat, bertsolariak, kantariak, rock kontzertua...

- **Udal Kirol Eskolen** jaialdia **larunbatean** goizeko 9.30etan hasita Labegarrietako **kiroldegian**: jolasak eta opariak hurbiltzen direnentzat.

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
 automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,
 Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

PELOTA

• **Etxenagusiari omenaldia:** larunbatean arratsaldeko 16.30etatik aurrera:

- Bergara eta Maiz II / Alustiza eta Martinikorena.
- Unanue eta Galarza III / Retegi II eta Errandonea.
- Murga eta Garaita / Gabilondo eta Andueza.

• **Elosuko Otaba Txapelketa:** igandean eguerdiko 12.00etan:

- Zapirain / Etxaniz.
- Osa eta Muruamendiaraz / Lete Madinabeitia.

Elosuko frontoian.

KIROLAK



• **Pala Txapelketako Finala:** igandean eguerdiko 12.00etan **Osin-txuko pelotalekuan:**

- Txopitea eta Gezalaga / Peñalba eta Garmendia.

FUTBOLA

• **Bergara - Roteta:** igandean arratsaldeko 17.30etan Agorrosinen. Promozioko itzulefako partidua.

XAKEA

• **Nahikari Tabernan:** Xake Txapelketa larunbatean arratsaldeko 16.00etan hasita.

AUKERAN



Taun-Taun Showaren

estreinaldia izango da larunbatean, gaueko 10.30etan, Novedaesen. Estatu Batuetan 20ko hamarkadan girotuta, itxi behar duten kabaret baten azken gaua kontatzen digute Taun-Taunekok beren azken lan honetan. Aurreko lanetan bezala, modu berezian landutako txotxongiloak eta umorea izango ditugu protagonista nagusiak. Karnabaletako aurre-estreinaldian izandako arrakastaren ondorioz, larunbatean euskarazko bertsioarekin estreinatuko dira.

FARMAZIAK

- **Larunbata 20:** Guallar/ Irizar (Arrasaten gauez).
- **Igandea 21:** Estella/Amezua.
- **Astelehena 22:** Mozos/Ruiz.
- **Asteartea 23:** Camacho/Morales.
- **Asteazkena 24:** Puy/Azkoaga.
- **Osteguna 25:** Guallar/Español.
- **Ostirala 26:** Estella/Irizar.



• **Igandea 21:** Ogizun.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01



Gauzak bere lekuan

Berrigarako 68. alean Bitoriana-txoren artikulua irakurri ondoren, antzuolarren "exijentzia" dela medio, lau hitz idazteko tentazioa izan dot. Zeren nere ustez gure herriko historia errespetatu beharra daukagu, gehien bat idatzitako dokumentazioa dagoenian.

1.391. urtean Uzarraga eta Bergara elkartu egin ziren, urte batzuk aurretik (1.348) Oxirondok gauza bera egin zuten.

Mendeetan zehar, hiru komunitate hauen artean hainbat istilu sortu ziren, zeren hiri barnekoek gutxiagotzat hartzen zituzten harresitik kanpo bizi zirenak.

... batzuetan Erregeak hiri barrukoentzat emendako pribilegioetatik...

...bestetan Bergarako alkateak, antzuolar batzuei ipinitako zigorragatik "Alarde de Armas" Bergarako plazan ez egitearren...

...eta baita ere 1.615. urtean Felipe III.ak emandako agindua antzuolarrei Bergarako ikurriñaren atzean joa teko, Erregea "en transito" pasatzen zenean...

...eta abar, eta abar....

Azkenian XVII. mendean antzuolarrak "hiri" bat osatzeko asmoa azaldu zioten Felipe IV. Erregeari. Bergararrek antzuolarren asmoak jakin zituztenean 500 ducado eskaini zioten Erregeari

antzuolarren eskaera deuseztatzeko.

Erregeak antzuolarrei eman zien arrazoaia, eta 1.629.eko abenduaren 12an Madrilen askatasuna lortu zuten, baina horren truke hiri berriak (Antzuolak) "Zidarrezko 5.000 ducado ordaindu zizkion Espainiako Erregeari".

Oraingoan antzuolarrak 5.000 ducadoak eskatzerakoan zuzenbide okerrera jo dutela uste dut.

Besarkada bat.

Jose Mari Larrañaga

Jaixak

Bada hilabete bat, Berrigararen 63. zenbakia kaleratu zela bertan zer pentsa eman zidan eskutitz bat zegoen, orain pazkoa jaixak igaro berri ditugun honetan idaztea erabaki dut.

Gutun hartan, auzoetako jaixen berri emateko ateratzen diren egitarauak bi hizkuntzetan idatzita egotearen desgokitasuna aipatzen zen. Jokabide hori jende gehiago inguratu nahiaren lekuko delarik, nahiz eta sarritan euskara hutsez idatzita helburua berdin lortu.

Iritzi horien aurka ez banago ere bada kezkatzen nauenik, izan ere orain hilabeteko idatzi hartan auzoko jai egitarauak salatzen ziren, herriko jai egitarauak ez al daukate gaitz berdina?,

akaso jende gehiago inguratu zedin propio egingo zuten.


Idatzi hura zer zen, adar jo nahia edo zozoak beleari esan zionaren antzekoa?

Sabin


Bakoitzari berea

Joan zen asteko Berrigarako portadako argazkia eta barrukaldean zetozen jaiei buruzkoak, Jaime Garziarenak ziren. Hitz hauen bidez gure lankide den Jaimek egindako lan bikaina eskertu nahi genuke.

Berrigara



Tiira ba!



Josu Okina



San Martzial

San Martzialetan Udalak mahaiak jarriko dizkie interesatutako kuadrilei, mahaiko 1.000 pta.ren truke. Udala mahaiak igo eta gero itzultzeaz arduratuko da eta kuadrilek jaso eta hartutako lekura eraman beharko dituzte. Interesatuek Kultur Etxean eman dezakete izena ekainaren 29a baino lehen.

Igerilekuak


Larunbatean, hilak 20, zabalduko dira azkenean kanpoko igerilekuak. Hemendik irailera bitartean goizeko 10etatik gaueko 8.45ra arte izango dira zabalik eta taberna ondoko egonlekua, berriz, gaueko ordubatak arte, zenbaitetan musika aktuzioak antolatuko direlarik bertan.

600 bat ikaslek selektibitate azterketa egin dute Bergaran

Ostegunean eta ostiralean egin dira Kiroldegian, Frontoian eta UNEDen ere aurtengo selektibitate azterketak. Guztira, Oñati, Arrasate, Elgoibar, Eibar eta Bergarako 600 ikasle inguru bildu izan dira Unibertsitateko beharrezkoa den azterketa hau gainditu nahian.

Bergarako Institututik, euskarazko taldean 60 eta erderazkoan, berriz, 20 ikasle aurkeztu ahal izan dira, asignaturaren bat suspendituta zuten beste 81 ikaslek (47 euskarazkoak eta 34 erderazkoak) ez dutelarik izan selektibitatea egiteko aukerarik. Horrez gain, iaz gainditu ez zuten beste 5 ikaslek ere saio berri bat egin dute aurten (3 euskarazko eta beste 2 erderazko mailatik).

Esan bezala, ostegun




eta ostiralean goizez eta arratsaldean egin dira selektibitate probak: zientziakoak Kiroldegian bildu dira (400 inguru): letretakoak eta mixtak egin dituztenak Frontoian (argazkian, Euskal Bizikletaren zaratak jasan zituztenak) eta beste 100 bat ikasle UNEDen bildu dira. IEE (edo REM) zein

UBI burutu duten ikasle hauek urtean zehar emandako materia guztiak aztergai izan dituzte eta, urteko notarekin media egin eta gero, karrera bat edo beste aukeratzeko posibilitatea ematen die. Emaitzak astebete barru jakineraziko zaizkiela espero da.

Istripua Zubiberrin

Astelehen goizean istripu oso ikusgarria izan zen Bergarako barietearen Maltzagarako irteeran. Zubiberri parean, bi kamioik elkarren kontra jo zuten. Ondorioz, Jose C.M. SS-3830-Z kamioiko gidaria Arrasateko Zentru Asistentzialera eraman zuten bizkarhezurretako traumatismoarekin, baina astelehenean bertan utzi zuen eritetxea. Beste kamioiko gidari frantsesak ez zuen inolako zauririk jasan. Ertzaintzako iturriek azaldu digutenez, kamioi frantsesak 40 tonelada txatarra zeramatzen eta gipuzkoarra, berriz, hutsik zihoan.



ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

KIZKUR



Ileapaindegia Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

□ **Bandoa**

Elosuko gainean dituen lurretan berdeguneak egokitu eta zuhaitz ostotsuak errekupeartzeko ahaleginetan dabilenez, Bergarako Udalak bandoaren bitartez jakin arazi du debekatu egiten dela lur horietan zaldi-ganadua libre erabiltzea. Eta uztaileen 2rako orain daudenak ez badira kentzen, ganaduen jabeei zigorrak ezarriko zaizkiela adierazten da bandoan.

□ **UNED**

92-93 ikasturtean Bergarako UNEDen ikasketak burutu nahi dituzten ikasleek uztaileen 15era arte izango dute zabalik aurreinskripzio epea. Argibide gehiago nahi izanez gero 76 13 43 telefono zenbakira deitu dezakezue.



Festa arrakastatsua

ATZEGI, Gipuzkoako Atzeratuen Elkarteak joan den larunbatean Altzasun ospatu zuen Gipuzkoako gutxitu sikikoen festa guttiz arrakastatsua suertatu zen antolatzaileen eritziz. Goizeko 9etatik bertan bildu ziren Gipuzkoako herri ezberdinetatik etorritako 400 gutxitu inguru, lagunartean, primeran pasatzeko helburuarekin. *Kukuma* hankapalu taldea, Iosu eta Aritz trikitilariak eta beste hainbat jendek parte hartu zuten festa haundi honetan eta gutxituek era guztietako jokoak

egiteko aukera izan zuten, ordu biak aldera guztiak bazkaltzeko bildu zirelarik.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, ATZEGIk oso positibotzat jo izan du Bergarako *Txolarie* taldeak burututako antolaketa eta datorren urtean beharbada honelako beste topaketa berri bat izango da gure herrian. Gutxituen kolektiboa laguntzen diharduen *Txolarie* taldeak berriz, eskerrak eman nahi dizkie Altzasuko bazkide eta musutruk laguntza eman zuten guztiei.

□ **Ikastaroa**

Soldadore ikastaroa antolatu du Bergarako Udalak 18 urtetik gorako langabetuentzat. Uztailetik abendura bitartean (abuztua ezik) era guztietako igeltseritza lanak eta bereziki baldosa eta axuleiu-jartze lanak erakutsiko dira. Plaza mugatuak dira eta interesatuek ekainaren 24ra arte izango dute zabalik izena emateko epea Udaleko Enplegu Dinamizatzailearen bulegoan (astelehenetik ostiralera, 9etatik ordubatera).

□ **Ordutegiak**

Banaketxe eta aurrezki kutxek astelehenetik ostiralera eta goizez bakarrik zabalduko dute udan. Udal bulegoak ere goizez izango dira zabalik, 8 t'erdietatik arratsaldeko 2.30etara.

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA




BERGARA Tfnoa: 76 25 99

URKIOLA

Gizon eta emakumezkoen moda

Bidekurutzeta 42, Tfnoa: 76 16 48 BERGARA



Ibaia kanalizatzen

Uztailean amaituko dira Deba Ibaia kanalizatzeko orain 10 bat hilabete hasitako lanak. *Confederacion de Aguas del Norte* delakoak martxan jarritako plangintza honen helburu nagusia uholderik ez errepikatzea litzateke eta aipatutako Konfederazioak zein Diputazioak ordainduko dute lanen kostua.

Bide-Berritik hasi eta San Lorentzoraino, besteak beste, ibaia kanalizatu, pretilak egin, ur zikinen kolektoreak eta, epe laburrera, depuradoreak ere jarriko dira. Udalak,

hasierako proiektuan sartzen ez zen kolektore sekundarioa ordainduko du (18 milioi pta. inguru). Ibaiak itxura zein ur tratamenduari dagokionean asko irabaziko du Hirigintza Batzordearen esanetan, Mekolalde inguruan depuradora bat jartzeko asmoa baitago. Industriek ere hainbat neurri bete beharko dituzte urak botatzerakoan eta epe luzera arrainak ikustea ere espero da. Ekologistek, ibaiaren bazter natural guztiak desagertzen ari direla protesta egin dute.

Txinpartak

✓ **Xake txapelketa** jokatu da larunbatean Nahikarin, arratsaldeko 4retan. Izen-ematea dohain izango da eta arratsaldeko 2.30ak arte egongo da zabalik.

✓ **Ignacio Morenoren** erakusketa antolotzeko izango da Kultur Etxean ikusgai ekainaren 30era arte. Bertan margolari honek 1.980-1.992 tartean egindako margoak ikus daitezke.

✓ **Pablo Urangaren** margoak, berriz, igandera arte ikusi ahal izango dira Elgetako Kultur Aretoan.

✓ **Udal Euskaltegiak** ekainaren 26ra arte izango du zabalik matrikula epea.

✓ **Jose Mari Etxaniz** eta Puerto-2eko espetxean dauden beste euskal presoak gose greban izan dira, jasaten duten egoeragatik protestatzeko.

✓ **Jose Luis Elkoro** eta HBko Mahai Nazionaleko beste zenbait kidek ere gose grebari ekin diote presoen giza eskubideak aldarrikatzeko.

✓ **Jon Azkunek** irabazi zuen igandean 2. urteko jubententzat antolatutako LVI. San Antonio Txirindulari Saria, Aitor Larrea antzuolarraren aurretik.

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA

ORDEZKARIA
BERGARAN



VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.

Azal eiguazu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.

BELANBIDE, Z/G · 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

10 Asteko berriak

Aspaldiko partez goi mailako txirrindularitza izan dugu aste honetan Bergaran, hain zuzen ere Euskal Bizikletaren helmuga eta irteera. Punta-puntako txirrindularitzak sortzen duen ikusmina, agerian utzi zuen ostegun arratsaldean eta ostiral eguerdian Ibargarai inguruan bildutako jendetza ugariak. Espektakulo ikusgarria benetan, Delgado, Chioccioli, Fignon, Zarrabeitia, Pello, e.a.ak gertu-gertutik ikustea...



Philippe Louviot bakarrik heldu zen Fraisko zuriko helmugara.

Goi mailako txirrindularitza

Euskal Bizikleta Bergarara iritsi zaigu aste honetan




Berrigarako kolaboratzaile eta El Diario Vasco-ko kiroletako erredaktore den Joseba Lezeta, Asier Guenetxearekin berbetan.

Lokatza Txirrindulari Elkarteak eta Udalak goi mailako ziklistak gertutik ikusteko aukera eman digu bergararroi eta jendearen erantzuna espero bezain bikaina izan da. Bi egunez notizia iturri izan dugu Bergara. Louviot frantziarrak, behintzat, gure herriaren oroitzapen ona gordeko du...

Mikel Zarrabeitia

"Garaipenaren bila etorri naizen arren, zaila ikusten dut irabaztea Chioccioli indartsu ikusten dut eta. Bera da nere faborito nagusia. Irabazten ez badut, orain daukaten lehen euskaldunaren mailotari eusten saiatuko naiz".




Pello Ruiz Cabestany

"Ez nabil ondo, nik pentsatu baino okerrago behintzat. Ilusio handia- rekin ekin nion, baina le- hendabiziko bi etapatan ez naiz fin ibili. Chiocciolik irabaziko duela uste dut, Girotik fuerte etorri da eta".

Pedro Mari Goikoetxea


"Chiocciolik irabaziko du eta errez gainera. Gatican argi utzi zuen irabazteko gogo handiekin zetorrela. Ostiraleko etapan ez bada Arratera igoeran jantziko du irabazalearen mailot urdina"



JUBILATUEN TABERNA

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparetek...

Amilaga (Gasolinerā ondoan) Tfnoa: 76 57 34

San Juan

bataiatzailearen ermita

Nork ez du San Juango auzoa ezagutzen Elgetarako bidean?. Bere ize-na ez dio auzoari bakarrik eman, aranari, errekarri eta lautada osoari eman die. Gaur agian pixkat gordea edo estalia gelditu da inguruan egindako berrikuntzekin. Santutxu bat ere badauka bide ez-kinean, aterpe ttiki eta guzti.

Ermitak irudi eta margotutako kuadro ugari dauzka. Irudietan: bi Juan Bataiatzaile, horietako bat aldare nagusian, eta bestea, zaharragoa, Santutxutik jaso. XVgarren gizaldiaren hasierako AndreMari fina, San Juan Ebanjelaria. Margotuta: aldare nagusian zurean frantzes estiloko Jesusen jaiotza, artzaiak eta abar

tartean, eta koruan beste bi kuadro. Erretaula nagusia XVIIIgarren mendekoa da.

San Markosetan Santamañatik "errogatibak" ateratzen ziren hiru egunetan: San Lorentzora, San Blasera eta San Juana. Euskadin Juan Bataiatzailearen elizak eta ermitak nonnahi daude. Beste tokietan bezala, gure San Juan auzoko baserriak bere Santuaren bezperako iluntzean suak egiten dituzte, eta herrikoi eta zahar diren abestiak eta bertsoak kantatzen. Goizeko ihintzan elorri adartxoak busti eta, beraiekin gurutze bat egin ondoren, etxeko atean ipintzen dute tximistetatik babestua gelditzekeo asmotan.

Lehenago San Juan ja-



San Juango ermitako aldare nagusian, San Juan bataiatzailearen eta AndreMariaren irudiak eta frantzes estiloko Jesusen jaiotzaren margoak aurki ditzakegu.

ian lorez ornitutako artolandareak eta gari buru aleak ermitara eramaten zituzten bere bedeinke-tarako. Gaur, aukeratuta-

ko lorak bakarrik eramaten dituzte.

Imanol Sorondo

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

ESPOLON



School of English

INGLES IKASTARO
INTENTSIBOETARAKO

matrikula zabalik.

- Haur eta helduentzat
 - Maila guztiak
 - Goiz eta arratsaldean
 - Kurtsoaren hasiera
- EKAINAREN 25EAN**

92-93 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK,
LEHENGO IKASLEENTZAT ZEIN BERRIENTZAT.

Argibide gehiago: Astelehenetik ostiralera 10etatik-12.30etara
eta 15etatik 16etara.

Ibargarai 31, Tfnoa: 76 03 53

Komunikazioaren bideetan

ARANSGUI, 25 urte gorrekin lanean

ARANSGUI Gipuzkoako gorren elkarteak sortu zeneko 25 urte betetzen dira aste honetan eta hori ospatzeko Gipuzkoako gor guztiak bilduko dituen bazkari haundi bat, beste ekintza batzuen artean, egingo da igandean Donostiako Anoeta kiroldegian.

ARANSGUIren 25. urtemuga aprobetxatuz gorren mundura hurbildu nahi izan dugu. Horretarako, Bergarako gorren eskolako zuzendari den Iñaki Madinabeitiarekin izan gara.

Bergarako gorren eskola orain dela 23 urte sortu zen: hasieran Donostiara edota Bilbora joaten ziren Bergarako gorrak, baina inguruko 19 udalerriko alkateek eta gorren gurasoak bildu eta Bergaran eskola bat erakitzea erabaki zuten. «Lehen urteetan ospital zabarrean jarri bazen ere, handik lasterrera orain daukagun egoitzan kokatu ginen» esan digu Iñaki Madinabeitiak.

Gipuzkoako lehen gorren eskola Donostian zabaldu zen. Ondoren,

handik bi urtetara Bergarakoa zabaldu zen eta hirugarrena, berriz, Tolosan, urte batzuk beranduago. Hiru dira beraz Gipuzkoan gorrendako dauden eskolak.

Eskola pribatu kontzertatua

Jaurilaritzako Hezkuntza eta Osasun sailekin eta Diputazioko Gizarte Ongizate departamentuarekin kontzertuak sinatuak dituzte eta Bergarako Udalak, berriz, azpiegitura gastuak bere gain

hartzen ditu. Horiekin eta gurasoek hilerdo ordaintzen duten kuota txiki batekin, urte honetarako aurreikusitako 107 milioi inguruko presupuestoari aurre egiten dio ARANSGUIk. Elkarrekin biltzen dituen hiru eskoletako haur kopurua kontutan hartuta (60 Donostian, 30 Bergaran eta 10-15 Tolosan) banatzen dira 107 milioiok.

25 urtetako lana

Gipuzkoako gorren

elkarrekin eman dituen 25 urteak ez dira alperrikakoak izan, ez eta gutxiagorik ere: «urte hauetako esperientzia oso aberasgarria izan da. 25 urteetan gorren arazoak ezagutu egin ditugu, euren beharrak, eskolatik zein akatsekin eta zein abantaila irten diren, jaso duten beziketa egokia izan den ala ez...», guzti horien azterketa egin ondoren aurrera begira hartzen ditugun neurriak egokiak izan daitezkeen, oso baliagarriak izan zaizkigu urte hauek».

Ondorioak ateratzeko ordua

Azterketa horrek eman dituen ondorio garrantzitsuenak hauexek lirateke Iñakiren eritziz: «alde batetik, argi geratu da pertsona gorra eta bere nortasuna bereziak direla, eta ezin dela pentsa denak berdintsuak direnik. Bestalde, eta aurrekoaren ondorio gisa, gor bakoitzari komunikazioa lortzeko behar diren bide eta tresna pertsonalizatuak eskaini behar zaizkiola konturatu gara. Hirugarren ondorioa, erreabilitazio eta hezkuntza sistema majikorik ez dagoela, eta denak erabili behar direla, une bakoitzean behar den neurrian eta moduan.

Honez gain, gure helburu nagusietariko bat, gorrek abozko hizkuntza ahal den hobekien mendera dezaten lortzea da.



Ezkerretik eskumara: Jeni, Manolo, Enrique, Erika, Nagore eta Ainara, 6 urteko neska-mutikoak.

Kontutan hartu dugu, gorrak bere antzekoekin harremanak izateko beharra duela, gizartean bere buruarekiko oreka. Eta azken konklusioa,

gaurko haur gorraren erreabilitazioa, gor helduen esperientzia kontutan izanik antolatu beharko dugula, aurrerantzean emaitzak hobetu nahi baditugu.

Eskofatik pasata gero ere, gorraren eta eskolaren arteko harremanak ez dira hausten: «harremanak gordetzen ditugu bemendik pasatu diren ikasle guztiekin eta sarri etortzen dira eskolara bertara, ikasleekin esperientziak elkar trukatzeara» adierazi digu Iñakik.

Hizkuntzaren arazoa

ARANSGUIren helburu nagusia gorren gizarteratzea da, besteekin komunikatzeko ahalmena izateko prestatzea. Komunikaziorako era guztiak erakusten zaizkizkie: hizkuntza idatzia eta mintzatua, ezpain irakurketa, mimika, verbo-



Ezkerretatik eskumara, aurrekaldean: Alicia Pombar, Aitziber Uriarte eta Iñaki Ugalde. Atzekaldean: Eneida Larrañaga eta Karmele Mondina.

tonala, ..., sistema bezala erabiltzen dira.

Hizkuntza mintzatuari dagokionez, gaztelera erakusten zaie, normalean aukeratzeko posibilitaterik ez dute eta. Gaztelaren «hautaketa» honek bere arazoak ditu. Iñakiren hitzetan, «jaiotzatik gorra den pertsona batek bi hizkuntza batera ikastea, entzule batek hamabost ikastea bezala da. Ho-

rregatik erdararen zabalakuntzaren errealitateak behartzen gaitu gaztelera oinarrizko hizkuntzatzat erabiltzera, nabiz eta hau menderatu eta gero euskara ikasten hasi. Beste gauza da, urte batzuetan entzule izan eta gorgelditu denarena, kasu honetan posible izan daiteke euskaraz hezitzea.

Bestalde, aukeraketa hori eginez gero, ingurua

erdaldundu egiten dela esaten dute askok. Hori ez da horrela nere ustez, zeren eta gorrari zuzenean hitzegin behar zaio, hau da aurpegiara, bestela zaila egiten zaio ondo ulertzea.

Eta argi izan behar dugu, ingurukoak gaztelera edota euskaraz hitzeginen ari diren ala ez antzera zaiola gorrari, berari zuzenean hitzeginen ez bazaio.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

**BERGARA
Karrozeria**

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31 Zubieta 46
Bergara

 **IZADI**
Santiveri PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

LAZKANO

OINETAKOAK

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

SOLANA

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA
Tfnoa: Biltegikoa: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



ETXE AUNDI

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI

FS

oto sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50




BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

Mujika

Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

Herri barruan kotxeko zinturoia erabiltzearen alde zaude?




Antonio Alba
50 urte, langilea

Herrian banaketak eta horrelako lanak egiten ibiltzen direnentzako ez da oso neurri ona, neurri horren kontra nago.



Mila Elorza
28 urte, langilea

Hirietan behar bada ondo egon daiteke, baina Bergaran horrelako neurria indarrean jartzea ez dut begi onez ikusten.



Victor Bernardo
40 urte, langilea

Ez litzateke beharrezkoa izan behar, norberak erabaki beharko luke bere buruarekin zer egin.



Mercedes Seviné
28 urte, langabetua

Beharrezkoa ikusten dut. Gainera, kotxea hartzen dudan bakoitzean gerrikoa jartzeko ohitura daukat.



IRAKASLE ESKOLA
Eskoriatza
Gipuzkoa

Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epaia zabalik dagoela.

ESPEZIALITATEAK:

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

BIGARREN DIPLOMATURAK:

- Haur-eskola
- Ingeles filologia

Informazioa: IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 79 04 40
Ordutegia: 9-13



Urrengoan hobeto

Azken urte hauetan areagotu dien arazo ekologikoak nolabait konpontzeko asmoz, ONU-k Rio de Janeiroko batzarra aurtengo ekainerako aldarrikatu zuenean, ene zelako sorpresa hartu genuen askok. Ozonoaren zuloak, klimaren aldaketa, bioaniztasunaren galtzea eta Hegoaldeko Herrialdeen gizarte, ekonomi eta ekologi kaos larria konpontzen hasiko direla?

Ba, itxura denez, ez da horrela izan. Rio-ko saltsa horren emaitzak bestelakoak dira: Arazoak kezkarriak direla onartu arren, ez dago lanean jartzeko borondate politikorik. Zenbaiten ustetan, optimista izan behar dugu: nahikoa ez al da munduko goi mailako politikariak ingurugiro arazo larrietaz ohartzea.

Hori bai lelokeri galanta: Ez al goaz azken 20 urtetan arazo horien garrantziaz ohartzen? Horrenbeste buelta eman behar berriz ere "ohartzeko"? Eta noizko benetako konpromezuak?

Baina tira, ez gaitezen larritu: Rio de Janeiron gertatutakoa hemen gertatzen denaren islada besterik ez da. Hemen ere, erabakiak hartzeko orduan, edozein arrazoi da (baita leloena ere) Ingurugiroa zaintzearena baino garrantzitsuagoa.

Gainera, kazetari batek esan duen bezala, hobe oraingoan txalo egin eta gure politikoak honelako erromeriak antolatzen jarraitzeko animatzen baditugu. Agian egunen baten Konfundidu eta ...ZAS! Aldaketa klimatikoaren akordioa sinatuta.

Iñaki Irizar



Eskola Txikien Eguna

Joan den domekan, Aian, Gipuzkoako Eskola Txiki bere eguna ospatu dute. Askorentzat ezezaguna egingo da ospakizun hori, eta beste askorentzat ezezaguna da Eskola Txiki bat zer den ere.

Gaur egun Gipuzkoan dauden eskola txikiak, lehengo unitarioak deitzen zirenak, hogeitamabi dira, eskualde batzuetan ugariagoak direlarik, esate baterako Tolosaldean. Gure eskualdean, Deba Garaian, bi besterik ez daude, Angiozarkoa eta Uberakoa, denbora baten morderoska bat baziren ere...

Azken hogeit urteetan nahiko gora behera eduki duten eskolak dira. 1.970ean egin zen irakaskuntza erreformarekin desprestijio urte batzu jasan zituzten, gerora, poliki-poliki, berreskuratzen joan direlarik beharrezko laguntzak eta gurasoen errespeto eta konfidantza ere.

Orain bizi duten egoera, datorren irakaskuntza erreformaren aurrean, nahiko itxaropentsua da, bai duten funtzionatzeko eragatik eta baita adin desberdinak, eta maila desberdinak beraz, gela berean egotean sortzen diren erlazioengatik, ikaslea etxetik hurbil eskolatzea den aberatsarekin, gainera.

Baina badago beste alde bat eta hori herri eta auzoei eskola edukitzeak dakarkien nortasunean datza, hortik "Eskola Txikiak Euskal Herriarentzat beharrezkoak" zioen aurtengo lemak.

Uste dut merezi duela hain hurbil eta hain ezezagun egiten den euskal eskola hauen errealitatea ezagutzea, askok, gainera, holako eskola baten ikasi genuen.

Jose Angel Mikeo


IGARZA
MERZERIA
LENZERIA

D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

anezka

Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

TOKI-ONA
Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -
Txitxizotzak-Kazolatxoak -
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ARDATZA

Brikolaketa

ATEAK
eta
HORMA
ARMAIRUAK

Mahasterreka 4
☎ 76 18 93

ANDUZU

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko botelilatokia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65





☐ JARDUNeko bideo-emanaldiak

Larunbat honetan, *Nimh*, *Brisby* anderearen mundu ezkutuarekin, amaituko dira azken hilabeteotan JARDUN Elkarteak haurrei zuzendurik eskeini dituen bideo emanaldiak. Gainera, azken aukera izango da frefistoen albuma bete eta, bide batez, sari ezberdinak jasotzeko. Argazkian agertzen diren **Aritz Balda**, **Gorka**, **Gurutz** eta **Iosu Elorza**, eta **Saioa** eta **Iker Etxabarrik** jaso dituzte jadanik bina liburu. Beraz, ez galdu aukera eta etorri zaitetz larunbatean 11etan Kultur Etxera lagunekin ondo pasatzera!!

☐ Kutxu Otamendi

Azkenaldian Bergarako margolariak albiste iturri ditugu. Aste honetan Zarautzen bizi den 30 urteko margolari bergarar honek bereganatu du protagonismo osoa; **Kutxu Otamendik Nafarroako Jaialdien X. Margo Lehiaketa** irabazi du titulurik gabeko eta dimentsio haundiko koadro batekin. Hirugarren aldia zen honako hau **Kutxu** ospe haundiko lehiaketa honetara aurkezten zena eta oraingoan, epaimahaiaren errekonozimenduaz gain, lehen sariari zegozkion 2 milioi pta.k eskuratu ditu. ZORIONAK!!



GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24



Zaharrak, olinpikoak

Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek antolatuta, larunbat arratsaldean burutu ziren Aretxabaletan **3. adinekoen I.go Olinpiadak**. Guztira, 300 bat partaide (40 bat bergarar tartean) bildu ziren, jaigiroan eta lagunartean oraindik ere sasoi onean daudela frogatzeko. Bartzelonako Olinpiadetan bailiran, arku-tiraketa, badmintona... eta horrelako hainbat probetan duten maisutasuna erakutsi zuten. Kontua da egun zoragarria igaro zutela eta jadanik hasi direla seguraski gure herrian ospatuko den Olinpiaden hurrengo edizioa prestatzen...

Barre batean

Oso ambiente ona izan zen joan den ostiralean Angiozarko Pagomendi Elkartean **JARDUNEK** antolatutako bertso-afarian. Guztira, 50 bat lagun bildu ziren lagunartean afaldu eta, bide batez, **Mikel Mendizabal** eta **Millan Telleriaren** bertsoekin primeran pasatzeko asmoz. Gonbidatutakoek gain, hara hurbildu ziren, besteak beste, **Koldo Egileor**, **Ainhua Agirreazaldeg**i, **Elgetako Goio**, **Josue Madariaga**... eta beste hainbat bertsozale, guztiek ere bere maila erakutsi zutelarik. Eta bertsoek



barrealgara ugari sortarazi bazuten, **Asier Agirrebeñaren** txistek ere ez ziren makalak izan. Esan bezala, afari ederra eta barre ugari.


Zertan dibardute ba?

IÑIGO RAMIREZ



Irakasle Eskolako 33 urteko antzuolar hau Bergarako geografia, historia, artea eta etnografia bilduko dituen liburua idazten ari da Udalak eskatuta, geroago eskoletan erabili ahal izateko.

ANTONIO MERINO



26 urteko antxintxikalari antzuolarrak bigarren postua lortu zuen astebukaeran Anoetan jokaturako Euskadiko Atletismo Txapelketetan 5.000 m.ko proban, lehen postutik 26 ehunekora geldituz.

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Umore giroan

Egazkiñen etorreria abixatzen

"Gerra denporan, eta Orbeaneko fabrikari, "abioiak" Eibar bobonbardeatzera zetozela abixatzeko, "Otua" aukeratu eben. Baiñan, nunbaitx, berak txistua jo orduko, egazkiñak agertzen ziran zeru goixan. Au ikusitxa, "Otua" kesan zeban:

- Mutillak, emendik aurrera, gabillaratik gorakua ikusten dodanian joko juat txistua.

* * *

Konpasa galduta askotan

"Otua"n onduan biarra eitxen zeban gizon txiki, potolo eta zur gorridun batek. Ardau botillian oso laguna zan. Egun baten, an zebillen,

tallarrian, erremintxa artian zezer billau naixan.

- Zer pasatzen jak? - esaten zetsan Otua.

- Konpasa galdu juat.

Ta "Otua" k bizkor asko erantzun:

- Sarri ibiltzen aiz i konpasa galduta!

* * *

Orrazi estua

"Sosola" eta "Otua" biargiñ lagunak ziran. Egun baten, an zeguan "Sosola", estu ta larri, artuak kokua zeukalako. Esaten zeban:

- Gure artuak zorrixakin dauaz, kokua jaukek. Zer erremedixo billau leikek orren kontra?

"Otua" k:

- Zorrixakin badauaz, onen-onena orrazi estua ibiltzia dok.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Merkatu-gunea Erdi Aroan

Howard Saalmanek dienez, "Erdi aroko edozein hiri, *merkatua* zen, eta merkataritza eta produkzioa hiriko edozein tokitan ematen zen: leku zabal zein itxietan, publiko zein pribatuetan".

Bergaran, kalean egiten omen zen hasieran merkaturia "en la calle estrecha" eta gainera "las frecuentes lluvias del país obligaban a recogerse la gente en la mayor parte del año dentro de los zaguanes".

Horregatik XVIII. mendean eta kontzejuaren egoitza berrien eraikuntzarekin, hiriak erabaki zuen merkaturia "plaza y Alhóndiga publica"-tan ospatzea.

Horrelako plazaren eraikuntza, asteroko merkaturia egunerokoa bihurtzearen ondorioa da eta Gaztelako hirietan ugari agertzen dira XV. mendea oso aurreratu-



ta dagoenean.

Bergarako Plaza Berria 1.699. urtean egin zen eta aurrerantzean bertan ospatuko da merkaturia, beste hiri askotan berriz, aldeantzez gertatzen da eta merkaturia ospatzen den lekuan sortzen dira plazak.

Egoitza honen eraikuntza sasoiko planteamenduekin bat dator, hauen arabera Plaza Nagusiak biztanleen topagunea eta ospakizun haundietarako lekurik egokienak ziren.

Amaia Basterretxea

BOLINTXO Okindegia

San Juan Tfnoa: 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
Tfnoa: 79 63 42 ARRASATE



LASA JATETXEA

Ostiral eta larunbatetan gauetan ere zabalik! Astelehenetan itxita!

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29

YAZKI


UME GAZTE
Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73


IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



Iñigo Igartzak jaso du aste honetan URCELAY harategiak emandako saria.



Hurrengo Galde Debaldeko saria ASKASIBAR jatetxeak emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Aurreko galdera nahiko nekeza izan da itxuraz, eta oraingoan, jendea animatzeko, erraz bat doa. Industrializazio garaitik baditugu Bergaran fabrika eraikuntza nabarmenak, gaur egun hutsik daudenak, garai bateko zarata hotsak ahazturik. Ikusgarrienak "Unión Cerrajera" enpresaren pabiloiak dira. Eta hor galdera:

Zenbat ladrilozko tximinia daude Bentako zubia eta Ozaetako zubia bitartean?



Izena _____ Abizena _____ Tfnoa: _____

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



Barrenkale, 3. BERGARA. telef.: 948-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

Iñigo Igartza

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen:
Aste Santua noiz den kalkulatzeko **udaberriko lehenengo ilargi betea** noiz den ikusi behar da, **ilargi bete ondorengo domeka da Aste Santuko Domeka**. Igande honetatik kontaktzen hasi eta 40 egunetara **Asentzio Eguna** da, eta egun honetatik 10 egunetara **Pentekoste Domeka**, hau da Bergarako Pazkuak.

IÑIGO IGARTZAK irabazi du **Urcelay harategiak** emandako **SARIA**.

ZORIONAK irabazleari!!

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderari!

Urcelay HARATEGIA

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

□ **Kirol Jaia**

Udal Kirol Eskolen Jaia ospatuko da larunbatean, ekainak 20, goizeko 9 terdian hasita Labegarietako Kiroldegian ikasturteari amaiera emanez. Jolas ezberdinak izango dira eta partaide guztientzat opariak izango dira.

□ **Pelota**

Bergarako Pelota Saila kanporatuta izan zen ostiralean Herri Arteko Pelota Txapelketan, Azkoitiaren aurka 3 eta 0 galdu ondoren. Azkoitian jokaturako joaneko partiduan ere 2 eta 1 galdu zuten bergararrek. Bestalde, igandean, hilak 21, Elusuko Otaba Txapelketaren finalak jokatu dira eguerdiko 12etan bertako frontoian.



Azken aukera

Bergarak 2 goleko errenta gaintu beharko du igandean preferentera igotzeko Rotetaren aurka jokatu duen partiduan, larunbatean Donostian 3 eta 1 galdu ondoren. Nahiko partidu txarra jokatu zuten bergararrek eta beti ere atzetik joan ziren markagailuan. Bi akatsen ondorioz 2 eta 0 aurreratu ziren donostiarrak, Pelayok penalti bati esker alde murriztuz. Azken minutuan Rotetak lortutako

hirugarren golak buruhauste ugari ekarriko die bergararrei igandean.

Arregi entrenatzailearen iritziz, "zaila dagoen arren, igoera lortu dezakegu. Hasieratik golaren bila arituko gara". Arregik 3 bat aldaketa egingo ditu hasierako hamaiakoa; "aurrean Arregi eta Davilak jokatu dute eta erdian eta atzean ere pare bat aldaketa egingo ditut". Partidua arratsaldeko 5.30etan hasiko da.

□ **ADI!**

Bergarako Atletismoaren historiari buruzko informazioa jaso nahi du Berrigarak, argitaratzeko asmoarekin. Horren informaziorik, zein argazkirik daukanak Berrigarara dei dezake (76 03 97).

□ **Pala**

Igandean, Gezala-Txopitea eta Peñalba-Garmendia bikoteek II. Pala Txapelketaren finala jokatu dute eguerdiko 12etan Osintxun.

□ **Omenaldia**

Larunbatean, hilak 20, Enpresas Unidasek omenaldia egingo dio gaixotasun larria jasaten duen Jose Mari Etxenagusia pelotari ohia frontoian 4 terdian jokatu den pelota jaialdian.



Arrantza lehiaketa

Igandean Angiozarko errekan Oilagorra Elkarteak antolatutako II. Arrantza lehiaketa jokatu zen. Goizeko 8etatik aurrera, 52 partaideek, antolatzaileek botatuko 185 amorrainak harrapatu nahian jardun zuten. Ez zuten suerte edo abilitate gehiegirik izan, amorrain gutxi atera baitziren. Azkenean, Javier Aransaez juniorretan (4 amorrain) eta Joseba Etxabek (4 ere) nagusietan irabazi zuten. Juniorretan bigarren eta hirugarren postua Iker Beitia eta Unai Etxeberriarentzat izan ziren eta nagusietan, berriz, Imanol Ibarrek eta Manolo Munarrizek eskuratu zituzten ohorezko bi postu horiek.

LONBIDE


OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



1.935eko kintoak

Hara hor kuadrila ederra dotore-dotore jantzita. 1914ean jaiotakoak dira, 1935eko kintoak, Hermandade egunean Hotel Lasa aurrean bilduak.

Hara zeintzuk diren ezkerretik eskumara:

Lehen ilaran, makurtuta: Balentin Larrañaga, Ramon Gallastegi, Amancio Frades, Jose Gomez, Jose Begiristain, Enrike Ruiz de Egin, Felix Iñarra, Hermenegildo Olabarria, Angel Jauregi eta Jose Maria Sañudo.

Bigarren ilaran: Luis Bikuña, Juan Alberdi, ezezaguna, Julian Elorza, Sebastian Osa, Joakin Etxaniz, Jose Mari Badiola, Felix Azkarate, Francisco Larrañaga, Bixente Aristegi, Luziano Larrañaga, Donato Areitio, Eugenio Arriaran, Joakin Gonzalez, Gilberto Amozarrain, Sebastian Latorre, Francisco Arriaran, Manuel Otxoa, Domingo Agirrebeña, Anjel Larraza eta Juanito Laskurain.

Hirugarren ilaran: Eugenio Eguren, Demetrio Iturbe, Justo Arregi, Anton Telleriarte, Juan Etxezarreta, Juan Fernandez, Pedro Garmendia, Luzio Gallastegi, ezezaguna eta Francisco Garzia.

Estepan Plazaola

Argazkia: Domingo Agirrebeña

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar 1, Tfnoa: 76 42 41

DENA 100

pzta.tan

Ireki berria

SIMON ARRIETA 3an

ETXEBIZITZA

Etxebizitza salgai Arzamendi 19an. 3 gela, saloia, sukaldea eta bi bainugela. Amueblatua eta gasaren instalazioa eginda. ☎ 76 10 10.

Pisua salgai Bidekuru-tzetan. (5.000.000) ☎ 76 09 36.

Pisua salgai Donostian (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

Bi apartamentu alokatzen ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Apartamentua alokatzen da (garaje eta guzti) **Jakan.** ☎ 76 43 98.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Ecler Mac 2 markako musika nahasketarako mahaia salgai (2 lerro eta 4 plater). ☎ 76 38 61.

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta **AKAI AP-X1 tokadisko** erdi-automatikoak salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

2 CV aren erroberak salgai (oso merke). ☎ 76 15 07 (Aniotz).

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Seter txakurkumak salgai ☎ 76 35 01 (gaez).

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

6-10 urteko haur batentzat mendiko bizikleta salgai (BH marka). ☎ 76 56 97.

Elektragailuak (garbigailua, hozgailua...) **erosiko nituzke** ☎ 76 17 85.

LANA

Mutil batek edozein motatako lanak -egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Taberna alokatzen da ☎ 76 53 73.

Arratsaldetan gaixoak eta edadetuak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

Bajua jotzen ikasteko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 17 85.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Mutil batek kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. marraztuko lituzke ☎ 76 25 59.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Hildakoak

Maximo Alvarez Arezaga
ekainaren 15ean, 75 urte
Mari Carmen Larrañaga Telleria
ekainaren 16an, 47 urte

Jaiotakoak

Joane Amasorrain Larrañaga
ekainaren 5ean
Andoni Fernández de Lecea Eguren
ekainaren 11n
Ane Mujika Larrañaga
ekainaren 17an

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak
Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara!!
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

Euskalduna
Taberna


OSINTXU


HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA



**TEMPRA
STADIO**

1.535.000 pzta
Matrikulatuta

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA